


An abstract artwork featuring a stylized face at the top, rendered in grey and red tones. Below the face is a large, textured area with vertical, wavy lines in shades of brown, red, and blue. The overall composition is layered and textured, with some areas appearing to be made of paper or fabric.

**Poesia** IRAKURTZEKO  
**Gida**


**Arrasateko Udal Biblioteka**



LOTSA EMATEN ZIDAN GAZTETAN poesia irakurtzen nuela esateak, lotsa gorriagoa ematen zidan poesia idazten nuela esateak, eta urteak egon nintzen irainetik gertu sentitzen nuen zaletasuna ezkututzen, nire buruarekin bakarrik gozaten. Oraindik ere ez dut berehala aitortzen ezezagunen artean poesia irakurri edo idazten dudala. Geroago poesia irakurri eta, harrigarriagoa zitaidana, idazten zuten beste pertsonekin elkartzean beste gozamen mota bat topatu nuen, aurkikuntza miragarri bat, zaletasun berezi hori konpartitzearena: liburuez hitz egin, liburuak aholkatu. Nire poesiarekiko zaletasunaren jatorria ez dakit zein den. Poesia irakurtzea, poesia idaztea eta bizitzea, hirurak dira niretzako sinonimo. Daniel Penac-ek dio bizitzeko ditugun arazoak eta irakurtzeko ditugunak berberak direla, eta bitxiak direla beti.

Poesiak ez zaitu jakintsuagoa egingo, poesiak ez dizkizu jakintza baliagarriak eskuan jarriko, poesiak ez dizkizu munduaren sekretuak xuxurlatuko, poesiak ez zaitu kementsuago bilakatuko. Eta hala ere, hala ere... garai eta herri guztietan hamaika gizon-emakume saiatu da hitzen bidez adierazten besteek jadanik esan zutena, inork inoiz esan ez zuena. Azken buruan poesiaren zeregin nagusia gauzak esatea da, norbera esatea, besteak esatea, mundua esatea edo ezer ez esatea, ezer eza esatea.

Hamar poetak aukeratu du zuretzako hamarna liburu hemen. Hitezko basoa duzu aurrean, ausart zaitez berau esploratzen, ez dituzu zuhaitzak bakarrik aurkituko. Poesiarekiko lotsa sentitu nuen nik, beste askok poesiarekiko aurreiritziak dituzte. Hobe bizi naiz orain lotsarik gabe eta hobe biziko zara aurreiritzirik gabe.



CUANDO ERA ADOLESCENTE me avergonzaba de decir que leía poesía, todavía me avergonzaba más si decía que escribía poesía; durante años escondí esta afición que sentía cerca del insulto, gozándola únicamente para mí. Incluso hoy no confieso ante desconocidos que leo o escribo poesía. Mucho más tarde conocí a gente que leía o, mayor sorpresa, escribía poesía, y encontré otra forma de placer, un descubrimiento milagroso, el de compartir esta afición especial: hablar de libros, aconsejar libros. No sé de dónde procede mi inclinación. Vivir, leer poesía, escribir poesía, las tres palabras son sinónimas para mí. Dice Daniel Penac que las razones que tenemos para vivir y las que tenemos para leer son las mismas, y que son siempre extrañas.

La poesía no te hará más sabio, la poesía no te pondrá en la mano ningún saber útil, la poesía no te susurrará los secretos del mundo, la poesía no te dará más coraje. Y sin embargo... miles de hombres y mujeres en todas las épocas y países se han esforzado para expresar por medio de palabras lo que otros ya habían dicho, lo que nunca nadie había dicho. Al fin y al cabo, el que hacer máximo de la poesía es decir, decirse un mismo, decir a los demás, decir el mundo o no decir nada, decir la nada.

Diez poetas han elegido para ti diez libros aquí. Tienes delante un bosque de palabras, atrévete a explorarlo, no encontrarás árboles solamente. Sentí vergüenza de la poesía, otros muchos tienen prejuicios hacia la poesía. Ahora sin esa vergüenza vivo mucho mejor, y tú también vivirás mejor sin esos prejuicios.



# Leire Bilbao



- ▶ Wislawa Szymborska, **Paisaje con grano de arena**, Lumen.
- ▶ Fernando Pessoa, **Antología poética: el poeta es un fingidor**, Espasa-Calpe.
- ▶ Rosario Castellanos, **Meditación en el umbral**, FCE.
- ▶ W.H. Auden, **Poemak**, Susa.
- ▶ Charles Bukowsky, **Poemas de la última noche de la tierra**, DVD ed.
- ▶ Joseba Sarrionaindia, **Hnuy illa nyha majah yahoo**, Elkar.
- ▶ Bernardo Atxaga, **Etiopia**, Erein.
- ▶ Miren Agur Meabe, **Azalaren kodea**, Susa.
- ▶ Iñigo Aranbarri, **Harrien lauhazka**, Susa.
- ▶ Jose Luis Otamendi, **Lur bat zure minari**, Susa.

## Lur bat zure minari

JOSE LUIS OTAMENDI


SUSA

Instituto garaiak ziren, Ruper Ordorikaren kantuak abesten genituen ahapeka eta Sarrionandiaren poesiak liluratu gintuen orduan. Bertso neurtu eta errimatuetatik haratago zertan zetzan euskal poesia jakin-minez geunden, euskal poesia bere osoan ezagutzeko gosez.

Udal liburutegiko apaletan deskubritu nuen Otamendi, aitor dut, kasualitatez. Eta oroitzen dut irakurri ostean neure logelako apaletan gordetzeko tentazio bizia izan nuela. Bere intimismoak hunkitu eta ukitu ninduen, sortzen zituen irudien ederrak, forma zaindutako fondoak, bere lirikotasunean korronteetatik urrun zebilen idazlearen estilo propioak. Gozatu nituen bide ertzean utzitako hitzak, metaforen zailtasun sinpleak, sufritu eta gozatu bertso lerroen artean aurkitutako maiteminaz. Neure egin nituen nolabait.

Itzuli egin nuen ordea, liburutegiko bere apalera. Penaz. Horregatik liburu huraxe bera eskatzera joan naiz berriz eta instintiboki solapan gordeta izaten ohi den orriari begiratu bat eman diot, zenbatek noiz hartu duten, zenbatekin konpartitu ahal izan dudana letren altxo txiki hau jakin-minez.


*Poza eta gero*-ren ostean etorri zen *Lur bat zure minari* (Susa, 1995) bere bosgarren eta momentuz azken poema liburua. Hamaika urte igaro dira nire eskuetara erori zela. Ez dut liburua orduko begiekin irakurri, orduko sentsazio berak asaldatu nau ordea. *Zuek ez dituzue inoiz nire poemak idatziko*, irakurri diot berriz edo *Elkarren premiari iritziko diogu askatasuna*. Horrelaxe ulertzen dut Otamendiren poesia. Oraingoan ez dut itzuliko



# Juan Bonilla



- **Antología Palatina**, Gredos.
- Catulo, **Poesías**, Cátedra.
- William Shakespeare, **Sonetos**, Renacimiento.
- Walt Whitman, **Hojas de hierba**, Visor.
- C. P. Cavafis, **Poemas**, Seix Barral.
- Gottfried Benn, **Morgue**, (Antología poética, Cátedra).
- Fernando Pessoa, **Poesía completa de Alberto Caeiro**, Pre-textos.
- T. S. Eliot, **Prufrock y otras observaciones**, Pre-textos.
- Edgar Lee Master, **Antología de Spoon River**, Cátedra.
- Gabriel Ferrater, **Las mujeres y los días**, Lumen.



## Poesías

CATULO

CÁTEDRA

CATULO me sigue pareciendo el poeta más joven de todos los tiempos, por años que pasen. Sus poemas tienen ese vigor y esa fuerza fascinante que permiten que una historia particular –parece que su poesía era altamente autobiográfica– diga la historia de cualquiera, porque al fin y al cabo todos somos particulares. Dada que su producción fue breve, es fácil aprenderse lo de

memoria. Y según otro de los presentes en mi lista, Gabriel Ferrater, un poema tenía que ser antes que nada “memorable (si bien esto es peligroso, porque suelen quedarse agarrados a nuestra memoria con mucha facilidad versos malos). Dijo Gamoneda en alguna ocasión que hubiera dado toda su obra por escribir un poema de Paul Celan. Yo también hubiera dado toda la obra de Gamoneda por “Odi et amo, quare id faciam fortasse requiris/Nescio, sed fieri sentio et excrucior”.





## Itxaro Borda



- ▶ Odysseus Elytis, **Axion esti**, Gallimard
- ▶ Jack Kerouac, **Mexico City Blues**, Grove Press.
- ▶ Maram El-Masri, **Cerise rouge sour carrelage blanc**, Phi.
- ▶ Rainer Maria Rilke, **Elegías de Duino**, Hiperión.
- ▶ Bertolt Brecht, **Buckower elegien und andere gedichte**, Insel.
- ▶ Arthur Rimbaud, **Poèmes/Poemak**, Erein.
- ▶ Marina Tsvétaïeva, **El canto y la ceniza: antología poética**, Galaxia Gutenberg.
- ▶ Ingeborg Bachmann, **No sé de ningún mundo mejor**, Hiperión.
- ▶ Luisa Villalta, **En Concreto**, Espiral maior.
- ▶ René Char, **Poesía esencial**, Galaxia Gutenberg.

### En Concreto

LUISA VILLALTA  
ESPIRAL MAIOR



2003an, Luisa Villalta poeta galiziar lagun-minak idatzi zuen poema luze bat. A Coruna hiriaz eta hiriri zuzendutako amodiozko kanta bluesy bat da. Ez zuen bilduma kalean ikusteko aukerarik ukan, baina hil aitzineko hilabetean ele-sorta horrengatik Galizako Espiral Maior saria irabazi zuen eta argialetxe handi horrek berak plaza-zion obra 2004 urtean.


“En Concreto” elegia deit dezakegun hortan, bere ibilbide poetikoan agian lehen aldiz karrikara jalgitzen zen Luisa Villalta, kanpoko errealtatea bihotzaren barnekoarekin erkatzeko, parekatzeko, uztartzeko. “Musica Reservada” eta “Ruido”-rekin isiltasuna nola eta nork hauts zezakeen poetizatzen zuen, musikaren neurria hitzetan bilatuz. Alabaina biolina jotzen zuen garaiak oroitzen zen ikiriatzerakoan. “Ruido” bildumako *Muller Mensura* Baionatik Bayonarako gutun bidezko elkar lanean euskaratzeko eta 1995-eko *Maiatz* aldizkariaren aleren batean haren publikatzeko ohorea utzi zidan Luisa Villaltak.

Bost zatitan banatzen da “En Concreto” poetak bere *a cidade* mitikoaren globalitatea hitzez hertsatu nahi bailuan. Eta lortzen du iragana eta geroa olde berdinean urtea, klase sozialen mugimenduak azpimarratzea, herioari arre egitea eta denbora geldotasunean gatibatzea, olerkia idazteko denbora arte hortan. Bilduma ederra da, ni bederen barrutik ukitzen nauena eta gure adiskidantza poetiko sakonaz gogoratzen naizenean, *en concreto* negarra begira datorkit.

# Angel Erro



- ▶ **Epigramas eróticos griegos**, Alianza.
- ▶ John Donne, **Poesía erótica**, Seix Barral.
- ▶ Dámaso Alonso, **Góngora y el Polifemo**, Gredos.
- ▶ T. S. Eliot, **T. S. Eliot euskaraz**, Hordago.
- ▶ Italo Calvino, **Las ciudades invisibles**, Siruela.
- ▶ Jaime Gil de Biedma, **Las personas del verbo**, Seix Barral.
- ▶ Juan Antonio González Iglesias, **Esto es mi cuerpo**, Visor.
- ▶ Rikardo Arregi, **Kartografia**, Alberdania.
- ▶ Igor Estankona, **Tundra**, Susa.
- ▶ Antonio Luque (alias Sr. Chinarro), **Letras en** [www.musicoscopio.com/sr-chinarro/letras](http://www.musicoscopio.com/sr-chinarro/letras).



## Góngora y el Polifemo

DÁMASO ALONSO

GREDOS

**G**óngoraren *Polifemo* edo *Soledades* hauta nitzake besterik gabe, eta ez saiakera hau, non *Polifemo* poemako 63 ahapaldiak banan-banan azaltzen baititu Dámaso Alonso irakasleak. U.B.I.ko irakasle batek utzi zidan Luis de Góngoraren baratze itxira sartzeko giltza hau. Liburua ez banu irakurri, Góngorarengan gelditu gabe igaroko nintzen (hobe izanen al nuen?). Leitzuz gero, ama hizkuntza maitatzenago ikasi nuen, baita ama bera ere,

uzten baitzidan Polifemoari buruzko roiloa bota niezaiola berak bizkarreko pikorrak kendu bitartean.

Góngorak eta, neurriren batean, zerrendako besteek ere jakitun biltzen dute haiengan aurreko tradizioa, eta libre iraultzen. *Polifemok* ordura arteko literatura, antzinakoa (klasikoak) zein garaiakoa (italiarrak batez ere), bere egiten du. Góngoraren ekoizpen osoaren laburpena (edo luzapena) ere bada: horko irudi asko poetak lehenago entseatu ditu gartzetan, eta orain, ederrago, harainoko urratsek zentzuz beteta dirudite.

Baina gerora ere proiektatzen jakin du Luis de Góngorak, mende honetako sortzaileengana ere, idazle zein musikari. Zerrendatu dudana Sr. Chinaroren surrealismo ederrari, v.gr., nik azalpen gongorinoa eman diot beti: "Izar ezagunak badaude, gatzontzi puskatu batekoak ia, urdin sinaturiko koltxoi gainean. Agente, hau duzu loto lorea" edo "la corona de las flores para el reino de la cama".



## Karmelo C. Iribarren



- ▶ Ángel González, **Palabra sobre palabra**, Seix Barral.
- ▶ Jaime Gil de Biedma, **Las personas del verbo**, Seix Barral.
- ▶ Antonio Machado, **Soledades. Galerías. Otros poemas**, Cátedra.
- ▶ Manuel Machado, **Almas. Caprichos. El mal poema**, Castalia.
- ▶ Luis Alberto de Cuenca, **La caja de plata**, FCE.
- ▶ Luis Antonio de Villena, **Huir del invierno**, Hiperión.
- ▶ Abelardo Linares, **Mitos**, Comares.
- ▶ Rafael Morales, **Obra poética completa** (Canción sobre el asfalto), Cátedra.
- ▶ Raymond Carver, **Todos nosotros**, Bartleby.
- ▶ Eloy Sánchez Rosillo, **Las cosas como fueron**, Tusquets.

### Las cosas como fueron

ELOY SÁNCHEZ ROSILLO  
TUSQUETS

#### Un poeta de verdad

*Las cosas como fueron*, título bajo el que Eloy Sánchez Rosillo nos presenta su poesía completa, nos informa de un poeta elegíaco, reflexivo, de decir claro, un poeta que encontró casi desde la primera entrega su voz, y que siempre (depurándola, eso sí, hasta donde es posible sin que la intensidad decaiga) se ha mantenido fiel a ella. En la mejor tradición cernudiana, la meditativa, filtrada por el mejor Brines (el horaciano, no el metafísico), cabría quizás incluir esta obra. El paso inexorable del tiempo (con el despojamiento y las pérdidas que acarrea), el fulgor del recuerdo, la “recreación estética” de la experiencia intransferible, única, de envejecer, parecen ser los temas que conforman el gran argumento de esta poesía. Pero también el milagro del presente, del instante vivido, que se va, por pequeño e intrascendente que pueda parecer. Un viaje en tren de regreso a la ciudad (véase el poema *La llegada*); una noche de insomnio en una habitación de hotel (*Madrugada*), o una mujer que cruza bajo su balcón y dobla la esquina para siempre (*Una muchacha*), motivos recurrentes por lo demás, en manos de este poeta adquieren una hondura inusitada, una emoción distinta, única.

*Las cosas como fueron* es un libro de una sencillez tan extrema como engañosa, de una belleza que no deslumbra, que hipnotiza, de una intensidad como es raro encontrar en la lírica de hoy.






# Koldo Izagirre



- ▶ Guillaume Apollinaire, **Antología**, Visor.
- ▶ Carlos Drummond de Andrade, **Antología poética**, AECI.
- ▶ Seamus Heaney, **Norte**, Hiperión.
- ▶ Rogelio Martínez Fure, **Poesía anónima africana**, Editorial Arte y Literatura.
- ▶ Serguei Esenin, **El último poeta del campo**, Alberto Corazón.
- ▶ Robert Desnos, **Destinée arbitraire**, Gallimard.
- ▶ Mahmud Darwish, **Desde Palestina**, Ediciones Libertarias.
- ▶ Nazim Hikmet, **Antología**, Visor.
- ▶ Arthur Rimbaud, **Poèmes/Poemak**, Erein.
- ▶ Joan Salvat-Papasseit, **Cincuenta poemas**, Lumen.



## Poèmes/Poemak

ARTHUR RIMBAUD

EREIN

**P**oeta barrikadetan egon zela ziurtatuko dizute exegeta itsuek eta nominako iraultzaileen zerrenden osatu zaleek. Rimbaud ez zen inoiz Commune garaian Parisen egon: legenda hondatzea bada ere, aski genuke bere gurtunak irakurtzea.

Eta, zer ardura du horrek?

Zenbat communard-ek jarraitu zuten iraultzaile izaten Comuna suntsituta gero?

Rimbaud ez zen inoiz Communean izan, baina communard izan genuen: iritzian, bai, baina izakeran gehiago, iraultzari berari ez ezik, iraultzaren ideari delako atxikitzen.

Frogatua dago Parisera baino lehen Babeuf eta Proudhon irakurriak zeuzkala. Parisen, clochard gisa bizi izan zen, herri xehearekin nahaste, barruan zeukan harra handituz, idazle communard-en kazetak eskuan. Charleville-ra itzulitakoan, poesia ikertzai-leek menosten duten *Projet de constitution communiste* izeneko txostena idatzi zuen.

Iraultzarekin bat egite honek eragin zizkion poema ederrenetariko batzuk, *Chant de guerre parisien* batetik hasi eta *Bateau ivre* ezaguneraino. Poema hauetan, bere maxinatze pertsonalak bat egiten du matxinada kolektiboarekin, eta horrela zabal-tzen du poesia modernoaren bidea: poetak ez du "ni" esaten bere buruaz hitz egiteko, baizik eta "benetako bizitza" bilatzen duten guztien amorru, errebolta, matxinada unibertsala islatzeko.

Bilaketa horrek sortu zituen Rimbaud poeta eta Rimbaud alderraia.



## Gerardo Markuleta



- ▶ **Izkiriaturik aurkitu ditudan ene poemak**, Joseba Sarrionandia, Pamiela.
- ▶ **Equipaje de mano**, José Luis García Martín, Acuarela.
- ▶ **Poesía inglesa del siglo veinte**, Libros del Peixe.
- ▶ Marcial, **Epigramas completos**, Cátedra.
- ▶ José Agustín Goytisolo, **Sobre las circunstancias**, Lumen.
- ▶ José Watanabe, **Elogio del refrenamiento**, Renacimiento.
- ▶ Berta Piñán, **Noches de incendio (1985-2000)**, Trea.
- ▶ Cesare Pavese, **Poesía**, Taifa.
- ▶ Yehuda Amichai, **Detrás de todo esto se oculta una gran felicidad**, La poesía, señor hidalgo.
- ▶ Raymond Carver, **Todos nosotros**, Bartleby.

### Elogio del refrenamiento

JOSÉ WATANABE  
RENACIMIENTO



**A**lberto Fujimori ez da salbuespen. XX. mendearen hasieran, gizon ugari heldu zen Japoniatik Perura, kostaldeko azüke-latifundioetan nekazari aritzera. Japoniarrak bikotekiderik gabe iritsi ohi ziren eta, familia bat osatu nahi zutenean, ahalordez ezkonzen ziren argazkiz ezagutu eta Japoniatik etorrarazitako neskekin. José Watanaberen aita salbuespen bakanetako izan zen jokaera endogamiko horretan, jernalari indigenen alaba batekin ezkondu baitzen.

Mutikotan, aitak haikuak itzultzen zizkion etxeko oilategian, eta amak etengabe harrizten zuen bere esaldi latz ederrez: eguneroko gauzeekin loturik, bat-batean lezio moralen trinkotasuna hartzen zuten, lezio batzuetan errukigabeak. Hala, bere poesian, aitari ikasitako “eusteko joera naturala”, harmonia ederrean batzen da amaren Andeetako kulturarekin. Poeman, gogoetak ikus esperientziatik sortzen dira, eta eszeptizismoa ez dator desengainu edo fede galera batetik; ezpada begi pentsalari batek, gauzei beren esanahi oinarritzak ateratzearen ateratzeaz, haien ostean bere gatazka propioen proiektio objektibo bat ikustetik.


“Zeinen eder den joatea/ pentsamendu garbietatik film pornografiko batera/ eta barre egitea/ hegaz egiten duen santuaz eta izerditzien den haragiaz.// Zeinen eder zurekin egotea, argiaren/ poesia/ emakume nekatu baten izterrean”.



# Vicente Luis Mora



- ▶ Paul Celan, **Amapola y memoria**, Hiperión.
- ▶ Juan Ramón Jiménez, **Espacio**, Diputación Provincial de Huelva.
- ▶ Federico García Lorca, **Poeta en Nueva York**, Cátedra.
- ▶ Rafael Alberti, **Sobre los ángeles**, Cátedra.
- ▶ Manoel Antonio, **De catro a catro**, Galaxia.
- ▶ Juan Eduardo Cirlot, **Bronwyn**, Siruela.
- ▶ John Ashbery, **Tres poemas**, DVD ediciones.
- ▶ José Ángel Valente, **Al dios del lugar**, Tusquets.
- ▶ Antonio Gamoneda, **Reescritura**, Abada.
- ▶ Bernardo Atxaga, **Etiopía**, Erein.



## Amapola y memoria

PAUL CELAN  
HIPERIÓN

No vamos a descubrir ahora la dificultad de Celan; es léxica, de construcción del poema, y semántica, por la dificultad de hacerse con el sistema de referencias de su obra (véase Bollack, *Poesía contra poesía: Celan y la literatura*). El poeta de Cernowitz, partiendo de la fractura del lenguaje propia de las obras de Heidegger (aunque la influencia fue, según el Steiner de *La barbarie de la ignorancia*, recí-

proca), observa la realidad de una forma alternativa, oscura, que requiere un lenguaje a la medida, acrisolando una poesía más preocupada por hacer vibrar a su través las dudas interiores que en exponerlas al modo convencional.

La experiencia del Holocausto fue decisiva para Celan. *Amapola y memoria*, su primer poemario, contiene “Fuga de muerte”, el célebre poema que quitó la razón a Adorno sobre la imposibilidad de escribir poesía después de Auschwitz (Anne Sexton refutaría la tesis). Blanchot destacó en *El último en hablar* cómo su experiencia se sublima en construcción estética, en expresión. Celan dijo en su *Discurso de Bremen*: “la lengua (...) hubo de pasar por un terrible mutismo, por las mil espesas tinieblas de una palabra asesina (...) Pero pasó por este lugar del Acontecimiento. Pasó y pudo de nuevo volver a la luz, *enriquecida* por todo aquello”. Terribles palabras, que vienen a decirle a Adorno más o menos que cómo fue posible escribir poesía *antes* de Auschwitz.




# Juanjo Olasagarre

- ▶ W. H. Auden, **Otro tiempo**, Pre-textos.
- ▶ Philip Larkin, **Ventanas altas**, Lumen.
- ▶ Bernardo Atxaga, **Etiopia**, Erein.
- ▶ Koldo Izagirre, **Goardasola Ahantzia**, Ustela saila ([www.armiarma.com](http://www.armiarma.com)).
- ▶ J. Gil de Biedma, **Las personas del verbo**, Seix Barral.
- ▶ Eugenio Montale, **Huesos de sepia**, (Poesía completa, Círculo de Lectores, Galaxia Gutenberg).
- ▶ Fernando Pessoa, **El libro del desasosiego**, Acantilado.
- ▶ C. P. Cavafis, **Poemas**, Seix Barral.
- ▶ Wysława Szymborska, **Paisaje con grano de arena**, Lumen.
- ▶ Gabriel Ferrater, **Las mujeres y los días**, Lumen.

## Ventanas altas

PHILIP LARKIN  
LUMEN

**H**igh windows/Ventanas altas liburua hartu nuenan Bigarren Mundu Gerra ondoko ahotsik tristenarekin topo egin behar nuelako ustearekin hurbildu nintzen liburura, hori baita topikoak diena, Larkin poeta tristea dela, batez ere tristea. Eta halaxe da batzuetan baina nik Larkinen oldar desengiztaile ustekabekoa azpimarratu nahi nuke hemen; Rimbaud baten, edo Bukowski baten erreboltak itxurazkoak bihurtzen ditu Larkinek, ia-ia naifak. Izan ere Larkinek ahotsa behartu gabe egiten du garrasi, ia garrasi egin gabe. Eta horrek, jakina, eraginkorrako bihurtzen du garrasia. Larkinen liburu horretan gabezia baino ez dago, ez egoteagatik ez dago ez eta gabezia hori aldarrikatuko lukeen garrasia, Larkinek ongi baitaki garrasian norbait entzuten egon daitekeelako esperantza gordetzen dela eta berak badaki esperantzarik ere ez dugula. Beraz tristea, bai, desolatua, ere bai, latza ere bai, baina batez ere argia. Hau da bitzta eta honekin konformatu beharra dugu. Eta, hala ere, esaten digu Larkinek *Belar Moztua* edo *Zuhaitzak* bezalako poema txikietan poesiaren indar irudikatzaile guztia konbokatuz, asko da.






# Eli Tolaretxipi



- ▶ Elizabeth Bishop, **Norte y Sur**, Igitur.
- ▶ Emily Dickinson, **Antología bilingüe**, Alianza.
- ▶ Rafael Cadenas, **Antología**, Visor.
- ▶ Miguel Casado, **La mujer automática**, Cátedra.
- ▶ Olvido García Valdés, **Caza nocturna**, Ave del Paraíso.
- ▶ Adrienne Rich, **21 poemas de amor** (Antología poética), Visor.
- ▶ Perla Rotzailt, **Tu cabello de ceniza Sulamita**, Grupo editor latinoamericano.
- ▶ Charles Simic, **El mundo no se acaba y otros poemas**, DVD ed.
- ▶ C. Tarkos, **Caisses**, POL.
- ▶ Tomas Tranströmer, **Para vivos y muertos**, Hiperión.



## 21 poemas de amor

ADRIENNE RICH

VISOR

**H**abía leído a Safo, a Cernuda, y sabía que una mujer podía escribir poemas de amor a otra mujer, un hombre a otro hombre. Entonces, yo empezaba a escribir y en mis poemas eran fantasmas a los que amaba. Para cuando conocí los *21 poemas de amor* de Adrienne Rich sabía que podía vivir experiencias homosexuales y escribir sobre ellas. A pesar de los prejuicios, la vía estaba abierta. Pero no era exactamente fácil: el poeta

lucha con las palabras y contra ellas, contra los lugares comunes y las normas. Para que la experiencia, la emoción, el gesto cuajen en el poema, es preciso disimular la debilidad, la torpeza, tener el pulso firme, ser hábil en la expresión. Así, los poemas de Adrienne Rich, que se pueden leer como se podría leer un cuerpo. Las extremidades, el tronco, las raíces, metáforas de la relación amorosa en su activo vaivén. En el centro, el sexo, el “poema emergente sin número”, un poema húmedo y hermoso. Más adelante, la cabeza, lugar del pensamiento y de la reflexión, del miedo, de la debilidad, de la ausencia y de la separación, pero sobre todo, lugar de la conciencia de soledad y de fortaleza. Y de lo que implica ser mujer. Escrita entre 1974 y 1976, esta obra de Rich marcó un hito en la poesía en lengua inglesa y quiso polemizar con la que escribiera Neruda.

# arrasateko udal biblioteka

**Tel.: 943 25 20 25**

**e-mail: [biblioteka@arrasate-mondragon.net](mailto:biblioteka@arrasate-mondragon.net)**

**Katalogoa interneten:**

**[www.liburutegiak.euskadi.net/katalogobateratua](http://www.liburutegiak.euskadi.net/katalogobateratua)**

**Ordutegia:**

**Goizean 10:00 - 13:00**

**Arratsaldean 16:00 - 20:30**

**Zapatuetan 10:00 - 13:00**

kultur  
ate

Argazkiak:  
Zaldiero (5, 8, 9, 11 eta 12 orr.)

Diseinua eta marrazkiak:  
Concetta Probanza, 2007



ARRASATEKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN